

## Funtsezko baliabideak

### • Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

#### • Baliabide fisikoak

Baliabide fisikoei dagokionez, bulegoa ezinbestekoa da, baita aditu bakoitzak eskaintzen dugun zerbitzua era paregabean burutzeko behar duen tresneria ere.

#### • Baliabide intelektualak

Baliabide intelektualei dagokienez ezinbestekoa da sail bakoitzeko pertsona arlo horretan aditua izatea. Bezeroei eskaintzen diegun zerbitzua, beraiek egingo balute bezala burutu behar dugulako.

Koordinatzaileari dagokionez, enpresen administrazioan jakituna izan behar da. Baita pertsonekin tratatzen jakin s hauen kexak jaso eta konponbidea eman beharko dielako.

Informatikoa aditu oso jakituna izan behar da enpresarentzat ezinbestekoa baita, coaching- app, eta enpresaren webgunea sortuko duena eta hauen funtzionamenduaren arduraduna izango delako.

Denbora aurrezteko asistentzia sailari dagokionez, azpi sail bakoitzaz arduratuko den adituak matria bakoitzean hauei dagokien ikasketak eta esperientzia izatea ezin bestekoa da, bezeroari eskaintzen zaion zerbitzua paregabea izateko

- Haur zainketaren saileko aditua
- Sail juridiko-administratiboan abokatua
- Etxeko lanen saileko aditua
- Geriatria saileko erizaina
- Garraioen erreparazio, mantenu eta conforteko mekanikoa
- Enkarguen saileko aditua
- Merkataritza saileko aditua

- Giza baliabideak

Koordinatzailea, informatikoa eta haur zainketaren saileko aditua, sail juridiko-administratiboan abokatua, etxeko lanen saileko aditua, geriatría saileko erizaina garraioen erreparazio, mantenu eta conforteko mekanikoa, enkarguen saileko aditua eta merkataritza saileko aditua.

- Finantza-baliabideak

Finantza baliabidei dagokionez hasierako inbertsioa ezin bestekoa izango da, enpresa heldutasunera iritsi eta bezero finkoak izan arte. Heldutasunera iristerakoan, kostu finko eta aldakorrei aurre egiteko, emandako zerbitzuen diru sarrerekin nahiko izango da.